



EHU

Euskal Herriko Unibertsitatea
Universidad del País Vasco

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE



ESKOLA ETA CURRICULUMA

K2 MODULUA

Haur Hezkuntza 1.maila

2025/2026

Aurkibidea

1. Sarrera	1
2. Arautegia	1
2.1. Koordinatzailearen ardurak.....	1
2.2. Azken ebaluazioaren kasua.....	2
2.3. K2a egitetik salbuestea	2
3. Konpetentziak	2
2. Testuingurua.....	3
2.1. Irakasle taldearen informazioa	3
2.2. Liburutegiaren eta pabiloiaren kokapena	4
2.3. Modulu lanaren laburpena.....	4
2.3.1. Lehen fasea: hausnarketa teorikoa eta idatzizko lanketa.....	4
2.3.2. Bigarren fasea: sormen-prozesua eta aurkezpen artistikoa.....	4
3. Lanaren kronograma.....	5
4. Emangarriak	6
4.1. Didaktika Orokorra	6
4.2. Musikaren-Adierazpena	7
4.3. Gorputz Adierazpena	7
4.4. Arte Plastikoak eta Ikus Kultura Haur Hezkuntzan	8
4.5. Hezkuntzaren Psikologia	10
5. EBALUAZIOA.....	12
5.1 Lehen faserako ebaluazio-adierazleak	13
5.2. Azken txostenerako ebaluazio-adierazleak	18
5.3. Aurkezpenerako ebaluazio-adierazleak	19
Eranskinak	20
1. Eranskina.....	20

1. Sarrera

II. Modulua (K2), Eskola eta curriculumaren izenekoak, Haur Hezkuntzako Graduko lehen mailan kokatzen da eta bigarren lauhilekoan garatzen da. Modulu honen barruan egiten den Diziplinarteko Lana bigarren lauhilekoan lantzen diren irakasgai guztien arteko elkarlanetik abiatzen da, curriculumaren ardatz nagusitzat hartuta. Ikuspegi zeharkakoa izango du, eta, aldi berean, didaktika espezifikoekin lotura zuzena izango du.

Lan honek 5 kredituko balioa izango ditu, bat bana irakasgai bakoitzeko, eta honako irakasgaiak dagozkie:



1. irudia: 2. lauhilabeteko ikasgaiak (egileek egina)

K2 modulua antolatzeko orduan, jarraian zehazten diren irizpideak hartuko dira kontuan. Lehenik eta behin, ikasle-taldeak lauhilekoaren hasieran zehaztuko dira, eta talde bakoitzari tutore bat esleitu zaio. Taldeak 5 ikasle osatuta egongo dira, eta tutoretza-lanak moduluan parte hartzen duten irakasgaien irakasleek egingo dituzte. Lanaren lehen fasea lehen astean bertan hasiko da.

Diziplinarteko Lana burutzeko, ikasleek guztira 125 ordu eskaini beharko dituzte, 15 astetan banatuta. Horietatik 60 ordu presentzialak izango dira: bi aste osotan (40 ordu) eta beste bi aste erditan (20 ordu), irakasgai guztietan saio presentzial jakin batzuk eginez, bai saio magistraletan bai praktikoetan. Gainerako 65 orduak ez-presentzialak izango dira, eta ikasleek, astean, batez beste 8 orduko dedikazioa izatea aurreikusten da. Azkenik, talde bakoitzak gutxienez hiru tutoretza-saio egingo ditu lauhilekoan zehar.

2. Arautegia

2.1. Koordinatzailearen ardurak

Koordinatzaileak lanaren ezaugarriak, entregatzeko epeak eta ahozko defentsaren tokia eta data zehaztuko dizkie ikasleei. Ikasle talde bakoitzari irakasle bat esleitu diot..

2.2. Azken ebaluazioaren kasua

Lan honek diziplinarreko izaera duenez, ikasleak jarraikako ebaluazioan parte hartu ezin badu, moduluko koordinatzailearekin harremanetan jarri beharko du, eta baita esleitu zaion tutorearekin, jada esleituak izan badira. Moduloko koordinatzaileari eta esleitu zaion tutoreari jakinaraziko dio. Kasu berezi horietan K2 modulua ordezkatzeko duen lan espezifiko bat egin beharko du. Irakasgai bakoitzeko irakasleak egin beharrekoa azalduko dio.


2.3. K2a egitetik salbuestea

Moduluetarako Akordio Gida jarraituz, fakultateko webgunean ageri dena, Graduako ikasleek K2ko lana egin beharko dute, gutxienez, modulu bereko hiru irakasgaitan matrikulatuta baldin badaude.

K2a egin behar ez duten ikasleen kasuan, irakasgaiaren azken nota 10etik kalkulatu da, K2ari dagokion ehunekoa kontuan hartu gabe.

3. Konpetentziak

EHU-ko zeharkako gaitasunen katalogoan (2019) oinarrituz, diziplinarreko lan honetan landuko diren zeharkako gaitasunak egoera edo zeregin konplexu baten aurrean ikasleek aktiboki martxan jarriko dituzten jardura eta prozesu gisa ulertzen dira. Katalogo horretan jasotzen diren hainbat gaitasun lantzen badira ere, lan honen bidez honako zeharkako konpetentziak modu esplizituan eta planifikatuan garatuko dira: autonomia eta autoerregulazioa, talde lana, komunikazioa eta eleaniztasuna, pentsamendu kritikoa, gizarte-konpromisoa, etika eta erantzukizun profesionala, berrikuntza eta ekintzailtza, eta informazioaren kudeaketa eta herritartasun digitala.



2. irudia: EHU-ko zeharkako gaitasunen katalogotik berreskuratuta (2019)

2. Testuingurua

75/2023 DEKRETUA, maiatzaren 30ekoa, Haur Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa (Dekretua hemendik aurrera) izango da proiektu honen abiapuntua. Dekretu horrek ezartzen dituen printzipioak, helburuak eta curriculum-ardatzak erreferentzia gisa hartuta, ikasleek lauhileko osoan zehar garatuko duten lan diziplinartekoa egituratuko da.

Hurrengo hauek dira prozesuan izango dituzuen bidelagunak eta espazioak.

2.1. Irakasle taldearen informazioa

Irakasgaia	Irakaslea/k	Kontaktua	Bulegoa
Garapen Psikomotorra	Andion Lacalle Iturbide	andion.lacalle@ehu.eus	B.10 bulegoa
	Iker Ros Martínez de Lahidalga	iker.ros@ehu.eus	
Arte Plastikoak eta Ikusizko Kultura	Ainhoa Gómez Pintado	ainhoa.gomez@ehu.eus	2.7 bulegoa
	Amaia Urzain Martínez	amaia.urzain@ehu.eus	2.2 bulegoa
Musika Adierazpenaren Garapena	Itziar Urretabizkaia Zabaleta	itziar.urretabizkaia@ehu.eus	B.12 bulegoa
	Asier Ealo Ochoa de Eribe	asier.ealo@ehu.eus	1.5 bulegoa
Hezkuntzaren Psikologia	Iratxe Antonio-Agirre	iratxe.antonio@ehu.eus	2.5 bulegoa
	Nagore Arbaiza Lekue	nagorezurine.arbaiza@ehu.eus	PDI001 bulegoa
Didaktika Orokorra	Garazi Álvarez Guerrero	garazi.alvarez@ehu.eus	2.8 bulegoa
	Leire Aranburu Etxegoien	Leire.aranburu@ehu.eus	PDI003

2.2. *Liburutegia eta pabiloia*ren kokapena

- Liburutegia helbide honetan topatuko duzue:
[Nieves Cano Kalea, 33, 01006 Vitoria-Gasteiz, Araba](#)



- Pabiloia, berriz, hemen:
[Los Apraiz Kalea, 1, 01006 Vitoria-Gasteiz, Araba](#)



2.3. *Modulu lanaren laburpena*

Lanaren garapena bi fasetan antolatuko da, elkarren osagarri izango direnak eta ikaskuntza-prozesuaren ikuspegi teorikotik sorkuntza artistikorako bidea egingo dutenak.

2.3.1. *Lehen fasea: hausnarketa teorikoa eta idatzizko lanketa*

Irakasgai bakoitzean, dekretuaren inguruko lanketa zehatz bat egingo da (ikus 3. emangarriak). Egiten diren lan hori dossier batean elkartuko da. Dokumentu horri azala, sarrera, eta ondorioen atal bat eta erabilitako erreferentziak gehituko zaizkio. Ondorioen atalean, egin den lanketa orotik taldeari arreta deitu dion alderdi baten inguruan hausnarketa egingo da eta idatziz jasoko da. Aukeratutako elementu hori bigarren faseari hasiera emango dio.

2.3.2. *Bigarren fasea: sormen-prozesua eta aurkezpen artistikoa*

Aukeratu den gaian sakontzeko, liburuak, artikulak eta bestelako informazio akademikoa irakurriko dira. Jasotako informazio guztiaren sintesi bat bilatuko. Lortutako informazio hori modu artistiko batean aurkeztea izango da helburua. Horretarako, iturri artistiko ezberdinetan inspirazioa bilatuko da, lehen fasean sortutako testu idatzia abiapuntu hartuta. Fase honetan, ikasleek artearen, musikaren, mugimenduaren, irudien edo bestelako adierazpen artistikoen bidez hausnarketa hori eraldatuko dute,

hezkuntza-testuinguruarekin koherentea izango den sorkuntza-proposamen batean. Fase honek diziplina ezberdinen arteko lotura indartzea du xede, baita ikasleen sormena, adierazkortasuna eta talde-lana sustatzea ere.

3. Lanaren kronograma

- a) Lehengo astean 5eko taldeak sortuko ditugu irakasleek, eta tutore bat esleituko da. Egokitutako tutoreak prozesuaren jarraipena egingo du, bai dosierrarena, bai amaierako aurkezpenarena.
- b) Dekretuaren hasierako lanketa Didaktika Orokorra irakasgaiaren egingo da, horren irakurketa sakona eginez.
- c) Otsailaren erdialdean, Arabako campuseko liburutegitik formakuntza bat eskainiko digute dokumentuen bilaketak egiten ikasteko. Bai Dekretuaren inguruan hausnarketa egiteko iturriak, bai erreferente artistiko inspiragarriak bilatzen ikastera bideratua izango da. Formakuntza horretan parte-hartzea ezinbesteko baldintza izango da K2a gainditzeko.
- d) Irakasgai bakoitzean, emangarri bat eskatuko da (ikus 3. emangarriak). Adierazten den egunaren gauera arte izango da bidalketa egiteko. Horien epeak hurrengoak izango dira:
 - Didaktika orokorra **otsailak 16**.
 - Musikaren adierazpenaren garapena I **otsailak 22**.
 - Garapen psikomotorra I **martxoak 17**.
 - Hezkuntzaren psikologia **martxoak 24**.
 - Arte plastikoak eta ikusizko kultura I **martxoak 28**.
- e) Emangarri horiek bateratuko dira, eta dossier bakarrean bidaliko dira, egelaren bitartez. Azken txosten horretan, azal bat, aurkibidea, sarrera, arestian aipatutako emangarri guztiak, eta gaiaren aukeraketa atalak izango ditu, eta **apirilak 1ean**, beranduenez, bidaliko da, egelaren bitartez eta egokitutako tutoreari email baten bidez. Txosten horretan, taldearen izena eta taldekideak agertu behar dute. Idatzizko horri nota bat jarriko dio tutoreak, gida honen ebaluazioaren ataleko azken txostenerako lorpen-adierazleak jarraituz.
- f) Idatzizko horretan aukeratutako gaitik aurkezpen artistikora egingo dugu trantsizioa. Horretarako, gai horren inguruan informazio berria bilatu behar da, taldeko hausnarketa bat egiteko helburuarekin. Modu autonomo batean, sortu dugun hausnarketa horren aurkezpen bat diseinatu eta aurrera eramango dugu, campuseko pabiloian. 45 minutu talde bakoitzeko, aurkezpen eta azalpena barne. Denbora horren barne ere aurkeztzen duen taldearekin interakzioa izango dute ikaskideek, galderak eta iruzkinak eginez. Beste taldeekin interakzio hori izatea ezinbesteko baldintza izango da K2a gainditzeko, eta ezin izango da azalekoa izan. Talde bakoitzeko irakasleek, 46 eta 47koak, alegia, egiten den

aurkezpen horri kalifikazio bat emango diote, gida honen ebaluazioaren ataleko irizpideak jarraituz. Talde guztien aurkezpenak ikusiko dugu, hau da, egokitu diren bi egunetan pabiloira bertaratu beharko dugu. Ordutegia aurrerago zehaztuko da. Hurrengo hauek dira talde bakoitzaren egunak:

- **46. taldeak maiatzak 4 eta 5ean, astelehen eta asteartea.**
- **47. taldeak maiatzak 6 eta 7an, asteazken eta osteguna.**

4. Emangarriak

Atal honetan irakasgai bakoitzean egingo diren eskakizunak azaldu egingo dira. Lanak egitura holistiko bat izango duenez, irakasgai bakoitzean lantzen dena modulu lanaren ebaluazioaren parte izango.

4.1. Didaktika Orokorra

Irakasgai honetan, lan honek oinarri bezala duen Haur Hezkuntzako curriculumaz aztertuko eta landuko da. Ikus 5.1. Didaktikako ariketa. Horretarako, hurrengo dokumentuetatik abiatuko gara.

Ley Orgánica 3/2020, de 29 de diciembre, por la que se modifica la Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación. <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2020-17264>

75/2023 Dekretua, maiatzaren 30ekoa, Haur Hezkuntzako curriculumaz zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa (EHAA, 2023-06-09) <https://www.euskadi.eus/curriculum-garapena/web01-a2hberri/eu/#:~:text=75/2023%20Dekretua%2C%20maiatzaren%2030ekoa>

Agindua, 2024ko urtarrilaren 22koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baitira Haur Hezkuntzako ebaluazioa eta Oinarrizko Hezkuntzako eta Batxilergoko ebaluazioa, mailaz igarotzea eta titulazioa, hala badagokio (EHAA, 2024-01-31) [https://www.euskadi.eus/curriculum-garapena/web01-a2hberri/eu/#:~:text=2023%2D06%2D09\)-.Agindua%2C%202024ko%20urtarrilaren%2022koa,-%2C%20Hezkuntzako%20sailburuarena%2C%20zeinaren](https://www.euskadi.eus/curriculum-garapena/web01-a2hberri/eu/#:~:text=2023%2D06%2D09)-.Agindua%2C%202024ko%20urtarrilaren%2022koa,-%2C%20Hezkuntzako%20sailburuarena%2C%20zeinaren)

Dokumentu hauetatik abiatuz, ikasgaiak landuko den ikas egoeraren proposamen bat egingo da, moduluak landuko diren didaktika espezifikoetan oinarrituko dena. Gaia librea izango da.

Horretarako, 1. eranskinean dagoen taula beteko duzue. Behin beteta, otsailak 9an, 23:59ak baino lehen, eGela bidez entregatuko duzue. Feedback-a klasean bertan emango da entrega aurretik egongo diren bi saio berezietan.

4.2. Musikaren-Adierazpena

Haur Hezkuntzako Dekretuak musikaren inguruan egiten dituen aipamenak jasoko ditugu eta horren inguruan dugun iritzia adieraziko dugu, hau da, zein alderdi positibo ikusten diogun eta zer hobetu daitekeen azalduko dugu. Lan proposamena, beraz, Dekretuan oinarrituriko **azterketa eta hausnarketa kritiko** bat egitea izango da ondokoak kontuan hartuz:

- ✓ Dekretuan musikarekin erlazioa daukaten eduki nagusiak identifikatzea
- ✓ Eduki horien azterketa kritikoa egitea, Haur Hezkuntzako musika hezkuntzaren ikuspegitik.
- ✓ Dekretuan proposatzen den ikuspegia beste iturri akademiko batzuekin alderatzea, aldaketa edo hobekuntza proposamenak eginez.

Azterketa eta hausnarketa kritiko hori egiteko, jarraian proposatzen diren iturri akademikoetan, eta, hala badagokio, beste lan edo erreferentzia osagarri batzuetan oinarritzea eskatzen da:

François Deladande (1995). *La música es un juego de niños*. Melos.

Malbrán, S. (2021). *Desafíos de la educación musical: disfrutar haciendo música*. En Organización de Estados Iberoamericanos para la Educación, la Ciencia y la Cultura (Ed.), *Educación artística, cultura y ciudadanía: de la teoría a la práctica*. (57–73 orr.).

McPherson, G. (Ed.). (2006). *The Child as Musician: a Handbook of Musical Development*. Oxford: Oxford University Press.

Montaraz Moral, I. M., eta Morales Fernández, Á. (2025). Educación musical en España: estudio comparado sobre la LOMCE y la LOMLOE en la etapa de educación primaria. Profesorado, *Revista de Currículum y Formación del Profesorado*, 29(2), 1–24.

4.3. Gorputz Adierazpena

1. urratsa

75/2023 Dekretua, maiatzaren 30ekoa, Haur Hezkuntzako curriculum a zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa gorputz adierazpenaren inguruan egiten dituen aipamenak jasoko ditugu eta horren inguruan dugun iritzia adieraziko dugu, hau da, zein alderdi positibo ikusten diogun eta zer hobetu daitekeen azalduko dugu. Lan proposamena, beraz, Dekretuan oinarrituriko **azterketa eta hausnarketa kritiko** bat egitea izango da ondokoak kontuan hartuz:

- ✓ Dekretuan, gorputz adierazpenarekin erlazioa daukaten eduki nagusiak identifikatzea
- ✓ Eduki horien azterketa kritikoa egitea, Haur Hezkuntzako gorputz adierazpenaren hezkuntzaren ikuspegitik.
- ✓ Dekretuan proposatzen den ikuspegia beste iturri akademiko batzuekin alderatzea.

Horretarako, jarraian proposatzen diren iturri akademikoetan eta, hala badagokio, beste lan edo erreferentzia osagarri batzuetan oinarritzea eskatzen da:

✓ Artikulua:

“Aportaciones desde la psicomotricidad a la observación de las instalaciones artísticas”. <https://www.revistaretos.org/index.php/retos/article/view/91516>

✓ Liburua:

Vizcarra, M. T. (2007). *Garapen psikomotorra Haur Hezkuntzan (0-6 urte)* [trad.: El desarrollo psicomotor en Educación Infantil (0-6 años)]. UPV/EHU. <https://ikasmaterialak.ehu.eus/hezkuntza/garapen-psikomotorra>

✓ Beste Baliabideak:

Acompañando las emociones de la pequeña infancia (0-3 años) mediante el teatro. <https://uvadoc.uva.es/handle/10324/23766>

Alvarez-Uria, A., Tresserras, A., Zelaieta, E. eta Vizcarra, M.T. (2015). Juego, teatro y Educación Infantil. La obra teatral Kubik y su valor pedagógico-artístico. *Enseñanza & Teaching*, 33(1), 143-161. <https://revistas.usal.es/tres/index.php/0212-5374/article/view/et2015331143161/13311>

González, D. (2022). Musicomotricidad: la música como herramienta psicomotriz en educación física. *Retos. Nuevas tendencias en Educación Física, Deportes y Recreación*, 43, 672-682. <https://doi.org/10.47197/retos.v43i0.89717> <https://ekoizpen-zientifikoa.ehu.eus/documentos/626b6d17fb0f086e3329e94b>

Análisis de los materiales didácticos de una obra teatral infantil <https://revistas.usc.gal/index.php/reladei/article/view/4697>

Liburua: Gorputz adierazpena lehen hezkuntzan: <https://addi.ehu.es/handle/10810/9170>

4.4. Arte Plastikoak eta Ikus Kultura Haur Hezkuntzan

Abiapuntua; ZER?

10 urte pasatu ditugu ESKOLAN Derrigorrezko Lehen eta Bigarren Hezkuntzako etapetan. Ohikoena da gertuko testuinguruetan (soziokultural-ekonomikoan) 6 urtetik beherako haurrak ere haur eskolara joatea. Unibertsitate Gradu honetara iristeko bide ezberdinak zeharkatu ditugu eta, orain, Haur Hezkuntza Graduko 1. mailako 2. lau hilabeteen K2 moduluan topo egingo dugu. ESKOLA ezberdinetatik etorri arren CURRICULUM lege dekretu batek (belaunaldiaren arabera) gidatu gaitu honaino (ba al dakigu zein izan den eskola etapan egon garen bitartean indarrean egon den lege dekretua? Zein izen zuen? Indarrean ote dagoen?). Nola interpretatu eta lurreratuko dugu lege bat, ezagutzen ez badugu? Horixe izango da gaia eta abiapuntua.

Behar edota betebeharrak honetatik dator jardura proposamen hau, IRAKURKETAN oinarrituta, baina ez soilik komuna den lege-dekretuaren (75/2023) irakurketa eginez; ezagutza arlo espezifiko bakoitzari dagokion testu aukeraketa bat egin dugu lege-dekretuaren azterketa kritiko bat egin ahal izateko, ULERMEN ETA INTERPRETAZIO ariketa bat proposatuz.

1. urratsa; NOLA?

Arte-hezkuntza esparrua ezagutu (erreferenteak), analizatu eta interpretatzeko HIRU IRAKURKETA aukeratu ditugu CURRICULUM DEKRETU OFIZIALARI begiratzeko modua aberasteko (ideiak, galderak, eztabaidak eta ezagutza berriak pizteko).

- **DEKRETUA**

Haur Hezkuntzako curriculumak zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeko [75/2023 Dekretua, maiatzaren 30ekoa](#)

- **LIBURU** bat

III. LA HISTORIA DE LAS MATERIAS CURRICULARES: PARA COMPRENDER LAS CONCEPCIONES DE LA EDUCACIÓN ARTÍSTICA (pp.55-79)

FERNANDO HERNANDEZ. (2000). *Educación y cultura visual*. Octaedro.

- **ALDIZKARI-ZIENTIFIKO ARTIKULU** bat

De Finlandia a Nueva Zelanda. Las artes en educación infantil. (467-484)

ARTE, INDIVIDUO Y SOCIEDAD Ediciones Complutense.

DOI: <https://doi.org/10.5209/aris.64415>

- **ESKOLA BATEN EREDU PRAKTIKO** bat

HACERES #6Open-roulotte-Ecuela El Martinet (Ripollet)

La escuela sin paredes. Arte, escuela y tramas comunitarias. Lafundició. (2025)

La escuela sin paredes - Centro de recursos

RED PLANEA_COLECCIÓN ARTE Y CURRICULUM

2. urratsa; ZERTARAKO?

Testuek eta dokumentuek irekitako bide formatibo, informatibo eta eztabaidei jarraibidea emateko, 2. pauso honetan, jasotako eta interpretatutako kontzeptu eta ideiak lurreratzeko (gorpuzteko, ulertzeko, gure hitzetan jartzeko, zalantzan jartzeko) **IRUDIZ (eta hitzez, soinu...)** OSATUTAKO GLOSATEGI kolektibo bat sortuko dugu (talde txikietan ekoizten diren lanak osatuko dute lan kolektiboa).

Inspirazio iturriak IRUDIAK ETA CURRICULUMaren IRUDITEGI BERRI HAU SORTZEKO, Ikus arteetatik datozen proiektuak, lanak eta egileak izango dira, hala nola:

- ✓ Pau Faus / LA CIUDAD JUBILADA_Argazkiak eta arkitekturatik
- ✓ Joan Brossa / Chema Madoz_Poesia bisuala, arte plastikoetatik
- ✓ Maria Acaso eta Clara Megías /ART THINKING, metaforak... arte+hezkuntzatik

- ✓ Carla Boserman / RELATOGRAMA_Ilustraziotik
- ✓ Sara Farinelli / DENBORA-MARRA_Ilustraziotik

4.5. Hezkuntzaren Psikologia

Hezkuntzaren Psikologian, Dekretuaren lanketa horrela egingo dugu:

1. urratsa

Hezkuntzaren Psikologiako oinarriak esleitutako 75/2023 Dekretuko pasarteetan identifikatzea.

Lehenik, lan-talde bakoitzari 75/2023 Dekretuan Hezkuntzaren Psikologian landutako teoriak eta egileekin lotura dituzten pasarteak identifikatu behar dituzte, euren erantzunak justifikatuz. Lan-talde guztietan identifikatu pasarteak ikastalde osoarekin ahoz goran amankomunean jarri eta Hezkuntzaren Psikologia oinarri dituzten pasarteen bilduma osatuko dugu.

Lehen urrats honetan, ikasleak Hezkuntzaren Psikologiaren oinarri teoriko nagusiak identifikatzeko duen gaitasuna ebaluatuko da, 75/2023 Dekretuko esleitutako pasarteetan oinarrituta. Zehazki, pasarteen esanahiaren ulermena, pasarte egokien hautaketa, eta identifikatutako oinarrien eta dekretuko edukien arteko loturaren justifikazio arrazoitua baloratuko da. Era berean, terminologia psikopedagogikoaren erabilera egokia, koherentea eta kontzeptualki zorrotza kontuan hartuko da.

2. urratsa

Hezkuntzaren Psikologiaren eta esleitutako 75/2023 Dekretuko pasartearen arteko loturaren irudikapena eta ahozko adierazpena (jardunaldian).

Bigarrenik, egindako identifikazioa eta justifikazioa hormairudi batean islatuko dute. Hormairudi hori ondoren izango duten jardunaldi batean ikaskideei elkar azalduko diote. Horretarako, bi taldekidek hormairudia beste talde bateko bi ikaskideei azalduko diete 2-3 minututan (talde guztiak gainerako taldeen azalpenak entzun eta jasoko dituzte); gainerako bi taldekideek beste taldeen hormairudien azalpenak entzuten joango dira eta beste taldeek dituzte pasarteetan identifikatutako teoria eta egileak apuntatzen joango dira.

Alderdi teoriko honetan lagungarriak suertatu daitezkeen materialak honakoak dira:

Arbaiza, N., Etxaniz, X., eta Rodríguez-Fernández, A. (2024). *Egin dezagun amets: Autokontzeptua Lehen Hezkuntzan lantzeko gida*. Ikertuz.

Arbaiza, N., Padierna, J. A., Horcajo, M. J., Moro, J., Goienetxea, M., Agirre-Legarreta, J., Legarreta, N., Molina, L., Etxaniz, X., eta Rodríguez-Fernández, A. (2021).

Lasai-Covid proiektua: haurren erregulazio emozionalerako hamar ariketa. In D.

Losada, N. Delgado, eta J. I. Escudero (Edk.), *Psikodidaktikako XXVII.*

Jardunaldiak (7-26 or.). Euskal Herriko Unibertsitatea.

Carretero, M. (2007). Konstruktibismoa eta hezkuntza. *Hik Hasi*, 20. Monografikoa.

Guil, R., Mestre, J. M., González de la Torre, G., eta Foncubierta, S. (2011). Integración del desarrollo de competencias emocionales en el currículum de Educación Infantil. *Revista Electrónica Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 14(3), 131-144.

Bigarren urratsean ikasleak Hezkuntzaren Psikologiaren eta esleitutako dekretu-pasartearen arteko lotura modu egituratuan eta koherentean ahoz azaltzeko duen gaitasuna ebaluatuko da. Horretarako, aintzat hartuko dira azalpenaren egitura logikoa, erabilitako hizkuntza eta terminologiaren egokitasun akademikoa, eta ahozko komunikazioaren argitasuna, segurtasuna eta eraginkortasuna jardunaldiko azalpenetan.

3. urratsa

Hezkuntzaren Psikologiaren eta 75/2023 Dekretu osoaren arteko loturaren azalpena (podcastean). Bukatzeko, jardunaldian entzuntakoen, baita taldeak berari esleitutako curriculumaren azalpenak, modu globalean talde bakoitzak 10 minutu gehienez iraungo duen podcast batean jasoko ditu, euren hausnarketa pertsonalarekin batera (gure curriculumak Hezkuntzaren Psikologiarekin harreman hau izanik, zein izan beharko litzateke etorkizunean? Nolako harremana izan dezan nahiko genuke?).

Hirugarren urratsean, ikasleak dekretuko edukien ulermen globala eta integratua garatzeko duen gaitasuna ebaluatuko da, Hezkuntzaren Psikologiaren oinarriak modu koherentean txertatuz. Halaber, egindako hausnarketa-maila, ondorio edo inplikazio pedagogikoen formulazioa, diskurtsoaren koherentzia eta barne-egituraketa baloratuko da, baita azken ekoizpenaren egokitasuna hautatutako formatu komunikatibora, kasu honetan, podcastera.

5. EBALUAZIOA

Ikasleen arteko koebaluzio bat eskatuko dugu prozesuaren erdian eta amaieran. Erdian egiten dugun hori, taldeetan egon daitezkeen gatazkak edo inplikazio falta detektatzeko baliatuko dugu. Amaierako koebaluzioak funtzio kalifikatiboa izango du, % 10eko pisua izanik.

% 50a Ariketak (%10 ikasgai bakoitzeko)

Irakasgai bakoitzean, emangarri bat egongo da, eta arlo bakoitzeko irakasleak bere arloa ebaluatzeaz arduratuko da. Ikus gida honen 3. emangarriak atala.

% 20 Azken txostena

Irakasgai guztien emangarri horien dokumentu bakarrean bateratuko dira, eta sarrera eta ondorioen atala gehituko zaio. Emangarri hori lauhileko amaieran esleitu den tutoreak ebaluatuko du.

% 20 Aurkezpena eta prozesua

Aurretik egin den lan horretatik, gai bai aukeratuko da, eta aurkezpen artistiko bat prestatuko da. Hasieran esleitutako tutoreak aurkezpen prestakuntza horren prozesua eta amaierako aurkezpena kalifikatuko du, azken hori gainerako irakasleekin adostuz.

5.1 Lehen faserako ebaluazio-adierazleak

Lorpen-adierazleak	Eskas 0-4	Nahikoa 5-6	Ongi 7-8	Bikain 9-10
Gorputz adierazpenaren garapena				
Dekretuaren edukia ulertu eta eduki nagusiak identifikatzea	Ez dira gorputz adierazpenarekin lotutako eduki nagusiak identifikatzen edo akats nabarmenak daude.	Eduki batzuk identifikatzen dira, baina ez dira guztiak edo modu mugatuan azaltzen dira.	Gorputz adierazpenarekin lotutako eduki nagusiak egoki identifikatzen eta laburbiltzen dira.	Eduki nagusiak modu zehatz, oso eta ondo egituratuan identifikatzen eta laburbiltzen dira.
Eduki horien azterketa kritikoa Haur Hezkuntzaren ikuspegitik	Ez dago azterketa kritikorik edo ez da Haur Hezkuntzaren ikuspegitik egiten.	Azterketa kritikoa azalekoa da edo partzialki lotzen da Haur Hezkuntzako gorputz adierazpenaren hezkuntzarekin.	Azterketa kritikoa koherentea da eta Haur Hezkuntzako gorputz adierazpenaren hezkuntzarekin ondo lotzen da.	Azterketa kritiko sakona egiten da, ikuspegi pedagogiko argiarekin eta argudio sendoekin.
Dekretuko ikuspegia beste iturri akademikoekin alderatzea	Ez da alderaketarik egiten edo ez dira iturri akademiko egokiak erabiltzen.	Alderaketa mugatua da edo iturri gutxi erabiltzen dira.	Dekretuko ikuspegia beste iturri akademikoekin egoki alderatzen da.	Alderaketa sakona eta ondo justifikatua egiten da, iturri akademiko anitz erabiliz.
Gorputz adierazpenaren- edukien azterketa eta hausnarketa antzezpen baten bidez adieraztea	Antzezpenak ez du gorputz adierazpenaren- edukien azterketarik zein hausnarketarik jasotzen.	Antzezpenak gorputz adierazpen- edukien azaleko azterketa eta hausnarketa jasotzen du.	Antzezpenak gorputz adierazpenaren- edukien azterketa eta hausnarketa sakona jasotzen du.	Antzezpenak gorputz adierazpenaren- edukien azterketa eta hausnarketa sakona jasotzen du, eta originaltasun handia erakutsi da.

Arte plastikoak eta ikusizko kultura

Ikus glosategi bat sortzea	Ekoizpena eta irakurketen arteko loturarik ez dira egin edo eskasak izan dira; emandako erreferentzien azterketa eskasa izan da.	Ekoizpena eta irakurketen arteko loturak oinarritzkoak izan dira. Ez dute curriculuma, arte-hezkuntza esparrua edo emandako erreferenteak modu kritiko batean aztertu.	Ekoizpena eta irakurketen arteko loturak nahikoak izan dira. Curriculuma, arte-hezkuntza esparrua eta emandako erreferenteak eta berriak aztertu dira baina ez sakonki.	Ekoizpena irakurketen interpretazioan oinarritu da, curriculuma eta arte-hezkuntza esparrua kritikoki aztertuz eta emandako erreferenteak eta berriak erabiliz.
	Ikus lengoaiak eta inspirazio iturriak azaleko moduan esploratu dira; ekoizpenak ez du eduki eta formaren arteko lotura koherenterik jasotzen.	Ikus lengoaiak eta inspirazio iturriak nahiko esploratu dira; ekoizpenak eduki eta formaren arteko lotura nahikoak uztartuz.	Ikus lengoaiak eta inspirazio iturriak ondo esploratu dira; ekoizpenak eduki eta formaren arteko lotura egokiak uztartuz.	Ikus lengoaiak eta inspirazio iturriak sakonki esploratu dira; ekoizpenak eduki eta formaren arteko lotura aberatsak uztartuz.

Musika adierazpenaren garapena				
Dekretuaren edukia ulertu eta eduki nagusiak identifikatzea	Ez dira musikarekin lotutako eduki nagusiak identifikatzen edo akats nabarmenak daude.	Eduki batzuk identifikatzen dira, baina ez dira guztiak edo modu mugatuan azaltzen dira.	Musikarekin lotutako eduki nagusiak egoki identifikatzen eta laburbiltzen dira.	Eduki nagusiak modu zehatz, oso eta ondo egituratuan identifikatzen eta laburbiltzen dira.
Eduki horien azterketa kritikoa Haur Hezkuntzaren ikuspegitik	Ez dago azterketa kritikorik edo ez da Haur Hezkuntzaren ikuspegitik egiten.	Azterketa kritikoa azalekoa da edo partzialki lotzen da Haur Hezkuntzako musikaren hezkuntzarekin.	Azterketa kritikoa koherentea da eta Haur Hezkuntzako musikaren hezkuntzarekin ondo lotzen da.	Azterketa kritiko sakona egiten da, ikuspegi pedagogiko argiarekin eta argudio sendoekin.
Dekretuko ikuspegia beste iturri akademikoekin alderatzea	Ez da alderaketarik egiten edo ez dira iturri akademiko egokiak erabiltzen.	Alderaketa mugatua da edo iturri gutxi erabiltzen dira.	Dekretuko ikuspegia beste iturri akademikoekin egoki alderatzen da.	Alderaketa sakona eta ondo justifikatua egiten da, iturri akademiko anitz erabiliz.

Didaktika Orokorra

Eremua eta Helburuak (Helburu didaktikoak)	Helburuak eta eremua ez daude argi definituta. Ez dute curriculumarekin loturarik.	Helburuak eta eremua orokorrak dira eta partzialki lotzen dira curriculumarekin.	Helburuak eta eremua argi formulatuta daude, curriculumarekin koherenteak dira.	Helburuak eta eremua oso zehatzak eta curriculumarekin erabat lerrokatuta daude.
Konpetentziak	Ez dira zehazten edo ez dago loturarik planteatutako jarduerekin.	Konpetentzia orokorrak edo espezifikoak bakarrik zehazten dira.	Konpetentzia orokorrak eta espezifikoak ongi identifikatuta daude baina ez dira guztiak aipatzen.	Konpetentziak modu integratuan lantzen dira, ardatz nagusi gisa.
Ebaluazio-irizpideak	Ez daude definituta edo ez datoz bat helburuekin.	Irizpide eta adierazle batzuk agertzen dira, baina zehaztasun gutxirekin.	Irizpideak eta adierazleak argiak dira eta helburuekin koherenteak.	Ebaluazio-irizpideak eta adierazleak oso zehatzak, koherenteak eta ikaskuntza-prozesua gidatzeko baliagarriak dira.
Oinarrizko jakintzak	Oinarrizko jakintzak ez dira azaltzen.	Oinarrizko jakintzak modu orokorrean aipatzen dira, baina ez dago lotura argirik helburuekin.	Oinarrizko jakintzak argi identifikatuta daude baina ez dira guztiz koherenteak helburuekin.	Oinarrizko jakintzak bat datoz proposatutako helburuekin eta koherenteak dira.

Hezkuntzaren Psikologia

Psikologia-oinarrien identifikazioa	Oinarriak ez ditu identifikatzen edo oker identifikatzen ditu.	Oinarri batzuk identifikatzen ditu, partzialki edo zehaztugabe.	Oinarri nagusiak zuzen identifikatzen ditu pasarteetan.	Oinarriak zehaztasun handiz eta sakontasunez identifikatzen ditu.
Dekretuaren ulermena eta pasarte hautaketa	Pasarteak esanahia gaizki interpretatzen du edo pasarteak ez dira adierazgarriak.	Ulermen partziala; pasarte batzuk egokiak dira.	Pasarteak esanahia ondo ulertzen du; pasarte egokiak hautatzen ditu.	Ulermen sakona eta testuinguruan kokatua; pasarte estrategikoak hautatzen ditu.
Justifikazioa eta loturaren koherentzia	Ez du justifikaziorik ematen edo lotura ez da egokia.	Lotura azalekoa da, argudio gutxiarekin.	Lotura arrazoitua, argia eta logikoa azaltzen du.	Lotura sakon eta sendoa justifikatzen du, adibideekin.
Kontzeptu-zorroztasuna eta terminologia	Termino psikopedagogikoak oker edo desagoki erabiltzen ditu.	Terminologia erabiltzen du, baina zehaztasun faltarekin.	Terminologia egokia eta koherentea erabiltzen du.	Terminologia zehatza, aberatsa eta akademikoki zaindua erabiltzen du.
Ahozko azalpenaren egitura eta komunikazioa	Diskurtsoa desordenatua; entzulearentzako zaila.	Egitura ahula; komunikazio-gabeziak.	Azalpen argia, egituratua eta segurtasunez egina.	Diskurtso koherente, eraginkor eta konbentzigarria.
Ikuspegi globala eta integrazioa	Dekretua pasarte solte gisa tratatzen du; ez du integrazioarekin egiten.	Ikuspegi mugatua; integrazio ahula.	Dekretua osotasun gisa ulertzen du eta oinarriak integratzen ditu.	Ikuspegi sistemikoa; integrazio sakon, koherente eta argigarria.
Hausnarketa eta balorazio pedagogikoa	Diskurtso deskribatzailea soilik.	Hausnarketa sinplea edo azalekoa.	Ondorio edo inplikazio pedagogikoak planteatzen ditu.	Hausnarketa kritiko, aberats eta ondo landua egiten du.
Formatuaren egokitasuna (podcasta)	Formatua ez du kontuan hartzen.	Ahots- edo erritmo-gabeziak ditu.	Podcast formatura egokituta dago.	Entzulearentzat oso egokia, zaindua eta erakargarria.

5.2. Azken txostenerako ebaluazio-adierazleak

Lorpen-adierazleak	Eskas 0-4	Nahikoa 5-6	Ongi 7-8	Bikain 9-10
Formatuaren egokitasuna	Lanak ez ditu oinarritzko formatu-irizpideak betetzen: egitura desegokia, atal nagusien falta, luzera edo aurkezpen desegokia.	Formatu orokorra egokia da, baina hutsuneak edo koherentzia falta daude egituran, izenburuetan edo testuaren antolaketan.	Lana ondo egituratua dago, formatu-irizpideak betetzen dira eta irakurketa erraza da, akats txiki batzuk izan arren.	Formatu guztiz egokia eta zaindua: egitura argia, atal logikoak eta aurkezpen profesionala.
Curriculum-aren ezagutza	Curriculumari buruzko azalpena azalekoa edo okerra da, eta ez da behar bezala lotzen bost arloekin.	Curriculumaren oinarritzko kontzeptuak ulertzen dira, baina azalpena mugatua da eta lotura eskasa da arlo batzuetan.	Curriculumaren ezagutza egokia erakusten da, bost arloetan aplikazio koherentea eginez.	Curriculumaren ezagutza sakona eta zehatza erakusten da, ikuspegi integratua eta adibide egokiak erabiliz bost arloetan.
Diziplinarteko jarduerari buruzko gogoeta	Ez da diziplinartekotasunari buruzko benetako gogoetarik egiten edo azalpena oso deskriptiboa da.	Diziplinartekotasuna aipatzen da, baina gogoeta mugatua da eta lotura ahula da arloen artean.	Diziplinarteko ikuspegia modu koherentean aztertzen da, arloen arteko harremanak azalduz.	Diziplinartekotasunari buruzko gogoeta sakona eta kritikoa egiten da, ekarpen propioekin eta ikuspegi pedagogiko argiarekin.
Hizkuntzaren zuzentasuna	Akats gramatikal, ortografiko eta sintaktiko ugari daude, ulermena zailduz.	Akats batzuk daude, baina testua ulergarria da oro har.	Hizkuntza zuzena eta egokia erabiltzen da, akats puntualekin.	Hizkuntza aberatsa, zehatza eta guztiz zuzena; estilo akademiko egokia etengabe mantentzen da.
APA arauak	APA arauak ez dira errespetatzen: aipamen eta erreferentzia okerrak edo falta dira.	APA arauak partzialki betetzen dira, baina hainbat akats daude.	APA arauak behar bezala aplikatzen dira, akats txiki puntualekin.	APA arauak modu zehatz eta koherentean aplikatzen dira testu osoan.

5.3. Aurkezpenerako ebaluazio-adierazleak

Lorpen-adierazleak	Eskas 0-4	Nahikoa 5-6	Ongi 7-8	Bikain 9-10
Prozesua eta amaierako aurkezpena	Aukeratu den gaiaren gainean ez da sakontzea lortu, eta ez da prozesurik egon. Amaierako ekoizpen bat egon da, baina esangura gabekoa.	Aukeratu den gaiaren gainean nolabait sakontzea lortu da, prozesuan bilakaera bat izanik. Amaierako ekoizpen interesgarri bat sortu da.	Aukeratu den gaiaren gainean sakonketa egon da eta hausnarketa bat egon da, bilakaera esanguratsu bat izanik. Amaierako ekoizpena sormen handikoa izan da, euskarri ezberdinak nahasteko gai izan dira eta konfiantzaz aritu dira.	Aukeratu den gaiaren gaineko sakonketa nabaria izan da eta hausnarketa bat egon da, bilakaera esanguratsu bat izanik. Amaierako ekoizpena sormen handikoa izan da, euskarri ezberdinak nahasteko gai izan dira eta konfiantzaz aritu dira.

Eranskinak

1. Eranskina



Eremua			
Hezkuntza Helburua			
Konpetentzia orokorrak	Konpetentzia espezifikoak	Ebaluazio Irizpideak	Oinarrizko Jakintzak

**Taula hau helburu bakoitzerako behar adina aldiz erabili dezakezue*